

DONOSTIA KULTURAKO ARETOAK DOHAINIK ERABILTZEKO ARAUAK

1. ESKAERAK

- 1.1 Donostia Kulturaren aurkeztu behar dira
- 1.2 Horretarako dagoen inprimikian
- 1.3 Gutxienez hamabost egun aurretik

2. ARAU OROKORRAK

- 2.1 Areto bat dohainik erabiltzeko baimena emateko, honako irizpide hauek nagusituko dira:

- * Zentroaren programazioa.
- * Guneen erabilgarritasuna.
- * Langileriaren egoera.
- * Ordutegiak.

- 2.2 Arau hauen hirugarren atalean aurreikusten diren erabilpenak bakarrik baimendu ahal izango dira. Beste edozein erabilpen Donostia Kulturako Zuzendaritzak aztertu beharko du.

- 2.3 Egingo diren ekitaldiak irekiak eta dohainik izan beharko dira, Donostia Kulturako Zuzendaritzak baimendutako salbuespen zuriak izan ezik

- 2.4 Egingo diren ekitaldiak zentroen ordutegietara egokitu beharko dira, eta ezin izango dute zentroen programazioa nahastu edo eragotzi, ez eta Donostia Kulturako eguneroko funtzionamenduari traba egin ere. Ordutegi honetatik kanpo geratzen den guztia, arduradunen iritzien arabera egingo da, langileria eta programazioa kontutan hartuta.

- 2.5.1 Areto bat erabiltzeko baimena izateak ez du esan nahi eskatzaileak barruan leku pribaturik izan dezakeenik ez eta zentroa bere elkartearen egoitzatzat har dezakeenik ere esan nahi

Gainera, baimen hau Hiri Alokairuen Legetik kanpo geratzen da bereziki.

- 2.6 Eskatzaileak ekitaldian parte hartuko duten pertsona guztiek hurrengoa beteko dutenaren konpromisoa hartzen du:

- * Donostia Kulturako Segurtasun eta Higieneari buruzko arauak
- * Ohiko erabilpen ordutegia
- * Donostia Kulturak zehaztuko dituen sarrera eta erabilpenerako arauak

- 2.7 Eskatzaileak honako ardura hauek hartuko ditu:

- * Aretoa zegoen egoera berean uztearena
- * Erabilpenegatik edo mantenimendu-ardura faltagatik ekitaldian zehar aretoetan gerta daitezkeen kalteena.

- 2.8 Donostia Kulturak aretoetan beharrezkoa den edozein aldaketa, eraldaketa edo seinaleztapen aldeztu aurretik baimendu beharko du. Kasu horretan, beti behin-

behineko edo aldi baterakoa izan beharko da, eta ezin izango dirazoruetan, hormetan edo sabaietan finkapenak behar dituzten elementuak erabili.

- 2.9 Baimen honek ez du Donostia Kulturako langileak lanerako erabiliko direnik esan nahi, ez eta bere ekipamendu teknikoa edo materialarena ere. Ekipamendua dela eta premia bereziak badaude, eskaeran azaldu beharko dira eta Donostia Kulturako Zuzendariaren baimena izan beharko dute.
- 2.10 Telefonoa edo bulegoetako materialak (fax, fotokopiagailua ...) ezingo dira erabili, ezta aretotik kanpoko beste edozein zerbitzu ere.
- 2.11 Donostia Kulturak, ekitaldia burutuko duten pertsonen sarrerak edo irteerak kontrolatzeko, zinpeko guardia baten presentzia beharrezkoa dela irizten badu, horren gastuak eskatzailearen kontura joango dira, baita kontratatu beharreko aparteko langileriarena ere.
- 2.12 Donostia Kultura laguntzaile moduan agertuko da baimendutako erabilpenak sortuko duen publizitate guztian.
- 2.13 Donostia Kulturak honako eskubide hauek gordeko ditu berarentzat:
- * Aretoaren erabilpenarengatik egindako publizitatea kontrolatzearena.
 - * Arau hauek betetzen ez badira edo instalazioa Donostia Kulturako ekitaldietarako behar denean, baimena deuseztatzearena.

3.ARAU ESPEZIFIKOAK

3.1 Kultur etxeak

- 3.1.1 Aretoaren eta bere ekipamenduaren erabilpen puntuala da baimentzen dena.
- 3.1.2 Ekitaldiak egiteko aretoak:

Eragin eremua gutxienez kultur etxea dagoen auzoa duten irabazi asmorik gabeko gizarte, kultur eta kirol izaerako elkarte edo entitateei bakarrik emango zaie baimena.

3.1.3 Bilerak egiteko

Pribatuak diren bileretarako, goian aipaturiko entitate eta elkarreez gain, pertsona fisikoak ere baimendu ahal izango dira, bilerak kultur, gizarte edo kirol izaera baldin badu.

3.1.4 Hauteskunde kanpainetarako:

Hauteskunde garaietan bakarrik, eta beti programatuta dauden ekintzen arabera, hauteskundeetarako koalizioek edo alderdi politikoek antolaturiko ekintzeratoko Kultur Etxeetako aretoen erabilpena baimendu ahal izango da. Horretarako, aldez aurretik 300€ fidantza ordaindu beharko da, ekintza burutu eta gero itzuliko dena, dena ondo balego, .